

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1209

IRAGARKIA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita «Dikar S Coop» enpresak arma eta osagarri fabrikazio baten jarduerarako aurkeztu duen proiektu teknikoa, Arrasaten.

Har dezagun Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legea (10/2021 Legea, abenduaren 9koa). Haren arabera, lege horretako I.B eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten jarduera eta instalazioak ustiatzea ingurumen-baimen bakarraren erregimen juridikoaren mende dago, titulartasun publiko edo pribatukoak izanda ere.

Ingurumen-baimen bakarraren bitartez, egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako prozedura administratibo bakarrean bateratuko dira kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora isurtzen diren hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak eta atmosferara eginiko isurpenen baimenak, eta dagozkien isurpenen mugako balioak ezarriko dira, aplikatu daitezkeen arloko araudiak xedaturikoaren arabera.

Arau horretako 36. artikuluan arabera, eskaera aurkeztu ondoren eta aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela ikusi ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoa iragarrita, instalazioaren edo jardueraren proiektua jendurrean jarriko da hogeita hamar egun baliodunetarako, alegazioak aurkez daitezzen.

Difusio handiagoa emateko, iragarki hori jarduera edo instalazioa kokatzen den udalerriko udalari jakinaraziko zaio, jendurrean jar dezan ediktu-taulan.

Adierazitakoa dela-eta, AAU00951_SOL_2023_001 espedientea jendurrean jarri behar da, 30 egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egokitzen jotzen diren alegazio edo oharak aurkezteko.

Informazio publikoaren izapidea bete behar duen instalazioaren espedientea ikusgai jarriko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>).

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 14a.

Zuzendaria ez dagoenez, otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,
AITOR ALDASORO ITURBE.